

Ainhoa Larrañaga

HUHEZIKO ETA LANKIKO KIDEA

## Lurraren eskola

**G**oibelaldiak hartu nau, nongoa den ez dakidan arren, kanpotik Euskal Herrira etorritako 50 urte inguruko gizona 20 m<sup>2</sup>ko lur sailtxoari berea atera nahian ikusi dudanean.

Eguna joan eta eguna etorri, nonbait utzi zituen lurrak gogoan, erreka ertzeko saila izerdiz ontzen diharduen gizonak zer pentsatua eman dit.

Pirinioetara joan zait gogoan, behea jotako hamaika herri haietara. Urteen ondoren sorlekura itzuli eta denborak eta elurrak eraitsitako teilatu eta pareta zaharretatik euren jaioterria berreraikitzen diharduten haietara. Lanbide alternatiboak aurkitu, haurrak ekarri eta hazi, eskolak sortu... Atarietan eta jarlekuetan ez da nagusirik ageri. Ez dago nagusirik, ilusioa eta beselako mundu bat amesten duten gazteen kemena baizik. Ez dago bizitza bukolikorako lekurik, eguneroko errealitatea aurrean, lanak markatzen du bidea. Zerk eraman ditu paraje haietara bueltan? Zerk bultzatu ditu lur gogor haietan bizibide eta ogibidea bilatzera?

Ilusioz betetako herri horietatik hurbil, hutsetik hasita eraikitako herrixkak. Paisaiarekin bat, estetika perfektuan eraikitako etxeak zein



JUDITH FERNANDEZ

baino zein dotoreago. Eliza itxurakoren bat ere bai tarteko, paisaiaren osagarri. Bakea da nagusi hemen urteko sasoirik gehienetan. Urbanizazio pribatueta, mantentze lanak egiten dituen langilearen tresnek ateratzen duten zaratak bakarrik hausten dute bakea. Itxitako ate, leiho eta bentantxilak, gezurreta-ko herria salatzen dute. Ez zahar eta ez gazte, inor bizi ez den herri perfektuak, dirudunen gozagarri eta bertakoen lotsagarri. Sikiera, bertaratzeko ahalegina egin dutenei lana ematen dienean ere, bada zerbait.

Euskal Herrira nator orain, Gipuzkoara zehatzago esateko. Gure herri txiki honetako 25 herri txiki, euren iraupenaren alde lanean: Larraul, Itziar, Ereñozu, Errezil, Aizarnazabal, Angiozar... Seme-alaben nortasuna eraikitzen lagunduko dien kulturaren, hizkuntzaren eta horien berme izan nahi duen eskolaren alde lanean. Lurra eta zoruaren arteko orekan, lehenengoaren aldeko apustua, bertan bizi nahi dutenen adierazgarri.

Ekainaren 12an, Abaltzisketan elkartu gara herri txikitako eta Eskola Txikitako ikasle irakasle eta gurasoak. Etorkizunari esperantzaz begiratzeko arrazoiak, egon badaude. ■

Larraul, Itziar, Ereñozu, Errezil, Aizarnazabal, Angiozar... Seme-alaben nortasuna eraikitzen lagunduko dien kulturaren, hizkuntzaren eta horien berme izan nahi duen eskolaren alde lanean. Lurra eta zoruaren arteko orekan, lehenengoaren aldeko apustua, bertan bizi nahi dutenen adierazgarri

## HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



egokitu zait hegazkina hartu behar izatea. Goizean goiz iritsita, aireportuko kafetegian topatu dut bakandua mundua, lauko mahaiak bakarrez okupatuta, PC portatiblek bateriak hustutzen inork inori agurrik ez, bista galdua bagenu bezala. Ez da mugikorra dantzan jartzeko tenorea, kanpoan ilun da. Enbarke txartela hartzeko deia, mahaiak jaso, eskuko samsoniteak eskuinetik eskegi lerroan zut DNla ezkerrekoan. Pistaurrekoan, metalezkoak eta besteak erantzi, lotsa irentsi eta arku azpitik iragan zerbait ezkutatu-ko bagenu bezala. Piii, zapatak libratu. Lunbagiak

### Ogibidean

jo ez nazan aulki baten anparo bila abiatzen naiz. "Eeee..." berdeak. Belaunika askatzen ditut korapiloak eta zapatak metalezkoen kutzara, armadunak agindu bezala. Euliak hiltzeko tramankulu digitalez aztertzen nau. Fidatzekoa naizela jo du. DNla berriz, pistan dagoen hegazkinera egiteko. DNlkoa naiz. Gaizkilea ez naizela frogatu diet. Joan naiteke. Inork ez du txintik atera, aire eremuaren seguritateak behar du, kolaboratzea da zuzenena. Bidairearen prezioak berdintzen du dena, guk lanak izango ditugu ordaindutakoa estaltzen, bidekoa berdintzen, gaurko ogiz hornitzen. Amorrurako kemenak ere ahitzen ari zaizkit. ■